

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2951

EBAZPENA, 2023ko ekainaren 13koa, Hezkuntzako sailburuordearena, Hezkuntza Sailaren eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) arteko kudeaketa-gomendiorako akordioa argitaratzeko dena.

2023ko ekainaren 7an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) akordio bat sinatu zuten. Akordio horren bidez HABE-ren esku uzten da unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan lan egiten duten irakasleentzako eta hezkuntza bereziko langileentzako euskara-ikastaroak antolatzea, Hezkuntza Sailaren IRALE programaren barruan.

Denek jakin dezaten, akordioa ebazpen honen eranskin gisa argitaratzea xedatzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 13a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

ERANSKINA

Akordioa, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) arteko kudeaketa-gomendioari buruzkoa, 2022-23 ikasturtean unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleak eta Hezkuntza bereziko langileak euskalduntze-ekintzetan jarduteko lankidetzaz zehazten duena.

BILDU DIRA:

Alde batetik, Jokin Bildarratz Sorron jauna, Hezkuntza Sailburua.

Bestetik, Bingen Zupiria Gorostidi jauna, Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailburua eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) presidente gisa.

ADIERAZI DUTE:

I.– Otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 14. artikuluan xedatzen du Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak duela irakasleen etengabeko prestakuntzaren gaineko eskumena. Bestalde, dekretu beraren 13.1.a) artikulua Hezkuntza Sailburuordetzari esleitzen dio hezkuntza-sistema antolatze, eraldatzeko eta berritzeko ekintzak planifikatzea, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzen arloko hezkuntza-politika definitzea eta koordinatzea, bai eta horrek curriculumaren eta araudiaren garapenean, irakasleen prestakuntzan, hezkuntza-premia berezietan eta hezkuntza berritzatzeko programen garapenean duen eragina ere.

II.– Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren IRALE programaren helburu nagusietako bat unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan lanean diharduten irakasleak eta Hezkuntza Bereziko langileak euskalduntzea da.

III.– Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak helburu hori lortzeko onartua duen IRALE programak lanordu barruko eta lanorduz kanpoko ikastaroak aurreikusten ditu. Ikastaro horiek HABEren Erregistroan inskribaturik dauden euskaltegi publiko, pribatu homologatu eta autoikaskuntzarako zentroetan izango dira.

IV.– Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu zeneko azaroaren 25eko 29/1983 Legearekin bat etorriz, HABE erakundea Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari atxikitako izaera administratibodun Erakunde Autonomiaduna da, bere nortasun juridikoa duena eta bere lanak burutzeko gaitasun osoa bere eskuetan daukana. Halaber, HABEren helbururik aipagarrienak, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako hizkuntza-politikaren arloan eskumena duen organoak emandako jarraibideen ildotik helduen euskalduntzea sustatzea da, baita helduen euskalduntzearen alde lan egiten duten erakunde publiko zein pribatuekin plan zehatzak egiteko hitzarmenak izenpetzea ere bai.

V.– HABE erakundeak, lehen esandako Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren beharrezko erantzuteko antolaketa eta beharrezko baliabideak ditu.

VI.– Arestian esandako horrengatik guztiarengatik, bildutakoek, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak eta HABEek elkarrekin lankidetzan aritzeko interesa dute eta lankidetzaz hori interes publikoaren onerako izan daitekeenez, kudeaketa-gomendio hau sinatzea erabaki dute, ondorengo klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan lanean diharduten irakasleei eta Hezkuntza Bereziko langileei Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren IRALE programaren euskara-ikastaroak antolatzeko Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeari (HABE) kudeatzeko

gomendioa ematea. Ikastaroak honakoak dira:

– Lanordu barrukoak:

Ikastaroa	Maila	Ezaugarriak
3000	B2	Hezkuntzako 1.H.E. lortzeko 6 hilabeteko ikastaroa (egunean 5 ordu)
4000	C1	Hezkuntzako HLEA lortzeko 6 hilabeteko ikastaroa (egunean 5 ordu)
5000	C1	Hezkuntzako 2.H.E. lortzeko 6 hilabeteko ikastaroa (egunean 5 ordu)
U2	B2	Hezkuntzako 1.H.E. lortzeko 10 hilabeteko ikastaroa (egunean 5 ordu)
U3	C1	Hezkuntzako 2.H.E. lortzeko 10 hilabeteko ikastaroa (egunean 5 ordu)

– Lanorduz kanpokoak:

Ikastaroa	Maila	Ezaugarriak
A	B2	Hezkuntzako 1.H.E. lortzeko ikastaroa, urritik ekainera bitartean
AU	B2	Hezkuntzako 1.H.E. lortzeko ikastaroa, uztailetik irailera bitartean
E	C1	Hezkuntzako 2.H.E. lortzeko ikastaroa, urritik ekainera bitartean
EU	C1	Hezkuntzako 2.H.E. lortzeko ikastaroa, uztailetik irailera bitartean

A eta E ikastaroak euskaltegi zein barnetegietan egin ahal izango dira, aurrez aurrekoak edota autoikaskuntzakoak. Barnetegien kasuan IRALEk klase-emankizunak bakarrik lagunduko ditu diruz, ez egonaldi-gastuak.

Bigarrena.– Kudeaketa-gomendio honi buruzko baldintza zehatzak akordio honen eranskinean jasotzea.

Hirugarrena.– Akordio honen testua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Akordio honen iraunaldia 2023ko abenduaren 31 arte izango da, eranskineko azken xedapenetan zehazten den arabera.

Bosgarrena.– Efikaziaren mesedetan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.1. artikulua xedatzen duenaren baitan, HABEk eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak adostu dute, unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan lanean diharduten irakasleei eta Hezkuntza Bereziko langileei lanordu barruko eta lanorduz kanpoko euskalduntze-ikastaroak antolatzeko Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren eskumenekoak diren jarduera material, tekniko eta zerbitzuzkoak Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeari (HABEri) kudeatzeko gomendioa ematea.

Seigarrena.– Kudeaketa-gomendio honen barruko lanak, araubide juridikoak alderdi bakoitzari aitortzen dizkion eskumenak errespetatuz burutuko dira. Beraz, kudeatzeko gomendio horrek ez du esan nahi, ez eskumenaren titulartasuna, ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak, lagatzen direnik.

Zazpigarrena.– Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan lanean diharduten irakasleei eta Hezkuntza Bereziko langileentzako lanordu barruko eta lanorduz kanpoko euskalduntze-ikastaroen deialdiak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak, Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzako Euskara Zerbitzuaren bitartez, egingo ditu, eta berak jaso eta bideratuko ditu parte hartzeko eskariak.

Zortzigarrena.– Lanorduetan arituko diren liberazio osoko ikasketariak zein euskaltegitara joango diren erabakitzea HABEren esku geratuko da. Lanorduz kanpoko ikasketariak, berriz, beraiek aukeratuko dituzte euskaltea eta ikastaroa (betiere HABEren erregistroan dagoena eta HABEK diruz lagundutakoa).

Bederatzigarrena.– Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan lanean diharduten irakasleen eta Hezkuntza Bereziko langileen lanaldiaren barruan eta lanalditik kanpoko euskalduntze-ikastaroak bat etorriko dira HABEK homologatutakoekin eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak IRALE programaren bitartez bere deialdian zehazten dituen moduluekin.

Hamargarrena.– Lanordu barruko zein lanorduz kanpoko euskalduntze-ikastaroetarako onartuta dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan lanean diharduten irakasleei eta Hezkuntza Bereziko langileei Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, matrikula-orria igorriko die, bakoitzak bere matrikula kudea dezan euskaltea publiko edo pribatu homologatu batean. Euskaltegiari egokituko zaio matrikula-orria behar bezala beteta HABEri igortzea, hark Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Euskara Zerbitzuari bidal diezaion, dagokion fakturarekin batera.

Hamaikagarrena.– HABEK, ikasleen matrikulen kudeaketari dagokionez, euskalteei igorritako matrikula-orriak jaso, aztertu, zuzenarazi hala balegokio, onartuko ditu eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Euskara Zerbitzuari bidaliko dizkio, matrikulei dagokien fakturazioarekin batera.

Hamabigarrena.– HABEK euskalduntze-ikastaroak emateko euskalteeien bitartez giza bitartekoak eta baliabide materialak ipiniko ditu.

Hamahirugarrena.– HABEren ardura izango da Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuari jakinaraztea euskaltea horietan emango diren IRALE ikastaroari buruzko xehetasunak (egutegi-epeak, ordutegiak eta lekuak...).

Hamalagarrena.– HABEK kudeaketa-gomendio honen helburu diren unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan lanean diharduten irakasleen eta Hezkuntza Bereziko langileen aprobetxamendu mailaren ebaluazioari eta asistentziari buruzko informazioa bidaliko dio Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Euskara Zerbitzuari.

Jarraipen-batzordea:

Hamabosgarrena.– Jarraipen-batzorde bat eratuko da, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren IRALEko eta HABEko kideek osatua, Kudeaketa-gomendio hau behar bezala kudeatu eta interpretatu ahal izateko, bai eta antolaketa-gaien, eta abarren inguruan sor litezkeen arazoak konpontzeko ere.

Jarraipen-batzorde horrek honako osaera hau izango du:

– Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren IRALEren izenean:

- a) Euskara Zerbitzuaren burua.
- b) Kudeaketa ekonomikoaren Zerbitzuaren burua.
- c) IRALE programaren arduradun teknikoa.

– HABEren izenean:

- a) HABEko Kudeaketa Zerbitzuaren burua.
- b) HABEko Ikuskatzailetzaren arduraduna.
- c) Herri administrazioetako ikasleen jarraipenerako HABEko teknikaria.

Xedapen orokorrak eta finantzaketa:

Hamaseigarrena.– Kudeaketa-gomendio honen jardueren finantzaketa Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren IRALE programaren kontura joango da, HABEk eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak finkatzen dituen 2020ko abuztuaren 4ko Aginduan oinarritutako honako irizpideen arabera:

a) Sektore publikoko langilez osatutako ikas-taldeak:

1.– Aurrez aurreko ikastereduan eskaintzen diren ikastaroak euskaltegi publikoetan: 119,49 euro/orduko/taldeko.

2.– Euskaltegi publikoek aurrez aurreko ikastereduan eskaintako ikastaroak administrazioaren lokaletan: 109,54 euro/taldeko/orduko.

3.– Aurrez aurreko ikastereduan eskaintzen diren ikastaroak euskaltegi pribatuetan: 83,60 euro/ taldeko/orduko.

4.– Euskaltegi pribatuak aurrez aurreko ikastereduan eskaintako ikastaroak administrazioaren lokaletan: 76,12 euro/taldeko/orduko.

b) Sektore publikoko langileen ikas-taldeetan sartzen ez diren ikasle solteak:

1.– Ikastaroak euskaltegi publikoetan: 9,95 euro/ikasleko/orduko.

2.– Ikastaroak euskaltegi pribatuetan:

– Lurralde historikoetako hiriburuetan: 7,63 euro/ikasleko/orduko.

– Gainerako herrietan: 7,08 euro/ikasleko/orduko.

c) Autoikaskuntza tutorizatuan eskaintzen diren ikastaroak (A eta E ikastaroak):

Autoikaskuntza tutorizatuaren bidezko ikastaroak euskaltegietan edo autoikaskuntzarako zentro homologatuetan:

Autoikaskuntza tutorizatuaren bidezko ikastaroko matrikula:

9 hilabeteko ikastaroa (190 ordu) – 1.800,00 euro.

3 hilabeteko ikastaroa (75 ordu) – 710,00 euro.

d) Ikasleei eginiko mailaketa-probak: 30 euro/orduko edo ikasleko.

e) Sektore publikoko langileen ikastaroen koordinazio eta jarraipen-zerbitzuak:

– Sektore publikoko ikas-taldeen kasuan: 5,91 euro/taldeko/orduko.

– Ikasle solteak bestelako taldetan: 0,52 euro/ikasleko/orduko.

Hamazazpigarrena.– Kudeaketa-gomendio honetatik eratorritako gastuen justifikazioa HABEk Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren IRALE programari aurkeztuko dio Erakunde horrek egoki jotzen dituen egiaztapenak egin ondoren transferentzia egin dezan. Gastuen justifikazioa honela egingo du HABEK:

- Urrian hasitako prestakuntza-jarduerak azaroaren 30erako beranduenez.

2023ko ekainaren 21a, asteazkena

- Ikasturtean zehar hasitako prestakuntza-jarduerak apirilaren 30erako beranduenez.
- Udako ikastaroetako prestakuntza-jarduerak irailaren 30erako beranduenez.

Ordainketei dagokienez, gehienez ere 21 egun naturaleko epea ezartzen da, HABEk faktura aurkezten duenetik hasita, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren IRALEk datuok Ekonomi, Informazio, Kudeaketa eta Aurrekontu Sistemari (EIKA) sar ditzan eta HABEk fakturatutako zenbatekoari dagozkion gastuen kudeaketa-agiria izapidetu dezan.

Hamazortzigarrena.– Honako arau hauek arautuko dute kudeaketa-gomendio honen betearazpena: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa, Espainiako ordenamendu juridikora egokitzen duena Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez babesteari buruzkoa, eta lege horiek garatzeko gainerako araudia.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Kudeaketa-gomendio honen indarraldia izenpetzen denetik 2023ko abenduaren 31 artekoa da. Kudeaketa-gomendio honek Hezkuntza Sailak eta HABEk irakaskuntzan euskalduntze eta alfabetatze ekintzetan 2017ko urriaren 20an sinatutako lankidetzak hitzarmena ordezkatzeko du.

Kudeaketa-gomendia urtero luzatuko da berez, non eta akordiodietako batek edo biek besterik adierazten ez duten eta EAEko Aurrekontu Orokorretan eginkizun honetarako krediturik baldin badago.

Akordiodietako batek kudeaketa-gomendia bertan behera uzteko eska dezake, baina hasitako jarduerak amaitu beharko dira. Bertan behera uzteko nahia jakinarazi eta handik hiru hilabetera galduko du indarra Kudeaketa-gomendioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Aurrekoa gorabehera, kudeaketa-gomendioaren finantzaketari buruzko klausulak HABEren prezio publikoen Aginduan eman daitezkeen aldaketen arabera egokituko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Akordiodie biek hartuko dituzte kudeaketa-gomendia betetzeko beharrezkotzat jotzen diren neurriak.

Esandakoarekin bat datozela frogatzeko, bi aldeek kudeaketa-gomendia izenpetzen dute.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 7a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua eta HABEko lehendakaria,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.